ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko abuztuaren 23a, ostirala • 97 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkatearen ebazpena, 2019ko uztailaren 23koa, zeinaren bidez Amurrioko Udaleko 2017ko EPEko administrarien plazetarako karrerako funtzionarioak izendatzen diren

Amurrioko Udalak, alkatetzaren 2019ko uztailaren 23ko ebazpenaren bidez, Amurrioko Udalaren 2017ko EPEko emaitzak onetsi zituen, eta administrarien plazetarako karrerako funtzionarioak izendatu zituen. Hona hemen, hitzez hitz:

"2017. ekitaldiko Enplegu Eskaintza Publikoan jaso ziren, eta funtzionarioen aurrekontu plantillan hutsik zeuden hiru administrarien plazak betetzeko egin den prozesuari jarraituz, epaimahai kalifikatzailearen proposamenaren arabera, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 36. eta 55. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, alkate honek, legez dagozkion ahalmenak egikarituz, honako hau

XEDATZEN DU

Lehenengoa. Hautaketa prozesuaren emaitzak onestea eta karrerako funtzionario izendatzea Inmaculada Canive Aldama, Eva Palacios Melero eta Fátima Rojas Sáez andreak (plaza: administraria; taldea: C1; eskala: Administrazio Orokorra). Halaber, jakinarazten zaie hogeita hamar (30) egun izango dituztela lanpostuaz jabetzeko, izendapena jakinarazten zaien hurrengo egunetik zenbatuta.

Bigarrena. Iragarki hau udal iragarkien taulan eta ALHAOn argitaratzea."

Amurrio, 2019ko abuztuaren 8a

Alkatea
MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.23 05:36:07 Z